

Emakumeak  
munduko  
biltzarretan:

tokian tokikotik globalera





Emakumeak  
munduko  
biltzarretan:

tokian tokikotik globalera





Argitalpen hau “Beste globalizazio baterako tokian tokiko proposamenak” proiektuaren barnean dago. Ekitaldi desberdinak antolatuz, proiektuak tokiko agenteek (GGKE, sindikatuak, gizarte mugimenduak, ikerketa zentroak) egiten duten globalizazioaren ondorioei buruzko sentsibilizazio lana eta globalizazio bidezkoagoaren aldeko proposamenak sortzeko ahalmenak gogortu nahi ditu.

Laguntzailea:



ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA  
Gizarte Gaietako Salburuordetza  
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza  
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y  
ASUNTOS SOCIALES  
Viceconsejería de Asuntos Sociales  
Dirección de Cooperación al Desarrollo

## Hegoa

UPV/EHU

Zubiria Etxea

Lehendakari Aguirre Etorbidea, 83 • 48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

Email: [hegoa@bs.ehu.es](mailto:hegoa@bs.ehu.es)

Kampuseko Liburutegia, 138 Posta-Kutxa (UPV/EHU)

Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 88 • Faxa: 945 01 42 87

Email: [hegoa@vc.ehu.es](mailto:hegoa@vc.ehu.es)

[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)

## Sarrera

Ondoren aurkezten dugun materiala, gida didaktiko batez lagundutako horma-irudi zabalgarria, Emakumeari buruzko Munduko Biltzarrak eta Emakumeen Nazioarteko Mugimendua aztertzeko hezkuntza baliabide erraza eta erabilgarria da. Bigarren hezkuntzako irakasleei zuzendurik dago (beren eskoletan erabiltzeko), baina GGKEek, aisiako taldeek eta gai hori landu nahi duten beste edozein elkartek ere erabil dezakete (gazte elkar-teen, boluntarioen elkar-teen, etab.).

Horma-irudia jorratu nahi diren edukiak grafikoki laburbiltzen dituen ikus baliabidea da. Gida didaktikoak, berriz, eduki horiei buruzko informazio gehiago ematen du eta ariketa zehatzak proposatzen ditu bere ataletan zehar:

- I. Desberdintasunaren sustraiak.
- II. Emakumeari buruzko munduko biltzarrak .
- III. Emakumeen nazioarteko mugimendua.

Horrez gain, glosario bat eta bi zerrenda aurkituko ditugu: lehena, edukiak lantzeko balio dezaketen film batzuen, eta bigarrena, informazio gehiago lortzeko zenbait web orrialderena.

## I. Desberdintasunaren sustraiak

Gure gizartea sexu desberdintasunen arabera sortu diren balio, arau eta ohituretan dago oinarriturik. Gizona edo emakumea izan, rol, trebezia eta gaitasun desberdinak esleitzen dizkigute. Desberdintasun horiek, ordea, ez dituzte gure ezaugarri biologikoen automatikoki eragiten; kulturak sortzen ditu. Fenomeno horri **sexu-genero sistema** deitzen zaio, eta feminismoak honek definitzen du: “sexu desberdintasunetan oinarrituz gizarteek sortzen dituzten praktika, sinbolo, adierazpen, arau eta balio sozialen multzoa”.

Sistema horren ondorioz, historian zehar, emakumeak eta gizonak toki desberdinetan egon dira bizitzako esparru guztietan, eta emakumeak beti bigarren mailan. Gizonen eta emakumeen arteko harremana gizarteak eraikitako desberdintasunen menpe egon da, eta horrek botere desberdintasunak ekarri ditu. Horregatik, gizartea **sistema patriarkalaren** arabera egituratu da.

*“Patriarkatua biztanleriaren erdia (hau da, emakumeak) beste erdiaren (gizonen) kontrolpean jartzen duen erakundea da”.* Kate Miller, “Política Sexual”. Ediciones Cátedra, Instituto de la Mujer, Colección Feminismos, 1995.

Emakumeekiko diskriminazioak eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak arazo bat izaten jarraitzen du munduko gizarte guztietan, eta feminismoa horren kontra borrokatu da eta oraindik borrokan dihardu. Emakumeak beraiek izan dira nazioarteko erakundeetan, gobernuetan, instituzioetan, GKEetan eta gizartean gertatu diren aldaketen eragileak. Alabaina, emakumeek egindako lanari esker aurrerapen garrantzitsuak egin diren arren, oraindik asko dago egiteko botere harremanak aldatzeko, diskriminazioa ezabatzeko eta genero berdintasuna erdiesteko.

### Zine-foruma: “Osama” filma

**Herrialdea:** Afganistan-Japonia-Irlanda • **Urtea:** 2003 • **Zuzendaria:** Siddiq Barmak

#### Laburpena:

Film hau boterea talibanen eskuetan zegoen garaian kokaturik dago, eta ama eta amonarekin bizi den hamabi urteko neskatok afganiar baten istorioa kontatzen du. Hiruretako batek ere ezin du lanik egin, talibanen erregimenak debekatu egiten dielako, eta familian ez dago mantenduko dituen gizonik. Horregatik, amak eta amonak neskatok mutilez janztea erabakiko dute, lanera joan dadin.

#### Ikusi filma, eta, ondoren, proposatu ariketa hauek:

- Deskribatu filmean azaltzen diren emakumeekiko diskriminazio motak.
- Idatzi istorio honetako protagonisten zerrenda, eta deskribatu beraien ezaugarri nagusiak: nolakoak dira, zergatik uste duzu horrela jokatzeko dutela, etab.
- Filmak islatzen duen testuinguru soziokultural eta ekonomikoa gurearekiko erabat desberdina da. Egin gogoeta zu bizi zaren gizartean dauden emakumeekiko diskriminazio motei buruz, egungo egoera eta duela gutxi historia kontuan izanik.
- Zure ustez, zergatik jarraitzen du bere horretan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak? Zer egin dezakezu eguneroko bizitzan desberdintasunari aurre egiteko?
- Filmaren bukaera kontuan izanik, imajinatu nolako izango den Osamaren bizitza une horretatik aurrera. Nolako aukerak ditu bere “patua” aldatzeko?

## II. Emakumeari buruzko munduko biltzarrak

### Zer dira Munduko Biltzarrak?

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) antolatzen dituen biltzarrak dira. Beraien helburua da mundu osoa ukitzen duten arazoak aztertzea eta, horren arabera, ekintza irizpideak finkatzea estatu kide guztientzat. Biltzarretan Nazio Batuen barruan dauden gobernu guztien ordezkariak hartzen dute parte, bai eta NBEko agentzia espezializatuek ere.

### Zertan gauzatzen dira?

Biltzar bakoitza **Ekintza Plan edo Plataforma** batekin bukatzen da. Bertan, lortu nahi diren helburuak zehazten dira, eta gobernu zein erakunde publikoek, GKEek, agentzia espezializatuek eta sektore pribatuak abiarazi beharreko neurri eta ekintza batzuk proposatzen dira.

### GKEek parte hartzen al dute?

Normalean, GKEek ez dute parte hartzen Biltzar ofizialetan; horren ordez, **GKEen Foro Alternatiboa** antolatzen dute Biltzarrak irauten duen egunetan. Biltzarrak jorratzen duen gaiarekin loturiko erakunde sozialen ordezkariak esku hartzen dute topaketa horretan.

Foroen helburua da gobernuetan eragitea, Biltzarretan hartzen diren erabakiek gizarte zibilaren proposamenak kontuan har ditzaten. Gune horietan mundu osoko erakunde sozialak elkartzen dira eta sarean lan egiten dute. Aldez aurretik, erakundeek mundu zein eskualde mailako biltzarrak egiten dituzte Foroaren edukiak prestatzeko.





## Emakumeari buruzko Munduko lau Biltzarrak

1975. urtetik gaur egunera arte Emakumeari buruzko Munduko lau Biltzar egin dira, hiru ardatzen inguruan: Berdintasuna, Garapena eta Bakea. Biltzarrok aurrerapenak ekarri dituzte, emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaia lehenetsun bihurtu baita munduko gobernuen agendetan.

### Emakumeari buruzko I. Munduko Biltzerra. Mexiko, 1975

1975. urtean egin zen, Emakumearen Nazioarteko Urtean, hain zuzen ere. Biltzarrak Mexikoko Deklarazioa onetsi zuen; deklarazio horrek diskriminazioa eta desberdintasuna munduko sistema bidegabeak eragindako azpigarapenarekin erlazionatzen ditu. Biltzarrean nazioarteko harreman ekonomikoak berregituratzeko premia ere azpimarratu zen, emakumeek bizitza ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalen gehiago parte har zezaten.

#### FORO ALTERNATIBOA:

6.000 emakume inguruk hartu zuten parte. Munduko erakunde feministen eta emakume erakundeen eztabaida eta elkartruckerako lehenengo guneetako bat izan zen. Foroak agerian utzi zuen Iparraldeko eta Hegoaldeko ekintzaileen artean desberdintasun handiak zeudela; hala ere, teoria eta politikaren ikuspuntutik aurrera egiteko balio izan zuen, kultura, arraza eta klasearen arabera desberdintasunak genero nortasunaren funtsezko elementutzat hartu zirelako.

### Emakumeari buruzko II. Munduko Biltzerra. Kopenhage, 1980

Biltzar honek erakutsi zuen alde handia zegoela bermatutako eskubideen eta emakumeek eskubide horiek erabiltzeko zituzten aukeren artean. Arazo horri aurre egiteko, hiru esparrutan neurri zehatzak hartzea ezinbestekotzat jo zen:

- Berdintasuna hezkuntzarako sarbidean.
- Lan aukerak.
- Osasun arretarako zerbitzu egokiak.

#### FORO ALTERNATIBOA:

7.000 emakume inguruk hartu zuten parte. Oso garrantzitsua izan zen, erakunde feministek eta emakumeenek estrategia berriak diseinatu baitzituzten hurrengo Biltzarretako dokumentu ofizialetan eragiteko.

### Emakumeari buruzko III. Munduko Biltzarra. Nairobi, 1985

Biltzar honek Emakumearen Hamarkadako (1975-1985) lorpenak ebaluatzea zuen helburu. Helburuak ez zirela bete egiaztatu zenez, oztopoak gainditzeko modu berriak bilatu zituzten. Horren emaitza Nairobiko Estrategiak izan ziren.

Biltzarrean ikusi zen generoaren gaia ez zela elementu isolatu bat, baizik eta bizitzaren esparru guztiak barne hartzen zituela (osasuna, hezkuntza, lana, industria, hedabideak, ingurumena, etab.), eta norabide horretan neurriak hartzea proposatu zen. Hegoaldeko emakumeek munduko sistema ekonomikoak emakumeengan dituen eraginak kritikatu zituzten.

#### FORO ALTERNATIBOA:

150 herrialdetako 14.000 emakumek hartu zuten parte. Foro honetan bi berritasun azpimarra daitezke: bertaratutako emakume eta erakunde feministen kantitate eta aniztasun handia, eta horietako batzuk koordinatu ziren modua. Foro honetan, emakumeak nazioarteko sareetan lan egiten hasi ziren. Bi fase egon ziren: Biltzarraren prestaketa eta Foroa bera.

### Emakumeari buruzko IV. Munduko Biltzarra. Beijing, 1995

Biltzar honek aurreko guztien joera eten zuen. Izan ere, aurrekoen helburua emakumeentzako neurri espezifikoak ezartzea zen, eta IV. biltzarrean ikusi zen emakumeen egoera aldatzeko gizarte osoa aldatu behar zela. Genero berdintasuna funtsezkotzat jo zen garapena eta munduko bakea lortzeko.

Biltzarrak Beijingeko Ekintza Plataforma onetsi zuen, emakumeen eskubideei dagokienez Nazio Batuen biltzar batek inoiz sortu duen dokumenturik osatuena.

#### FORO ALTERNATIBOA:

30.000 emakume inguruk hartu zuten parte. Foro honek ez zuen bete erakundeen eragina handitzeko helburua, baina gauza garrantzitsuak lortu zituen: Ekintza Plataforman sartuta ez zeuden gaiak eta ikuspuntuak azaleratu zituen; emakumeekiko diskriminazio mota guztien ezabapenarekin loturiko aurrerakada eta atzerakaden azterketa sakon eta kritikoa egin zuen; adostutako erabakiak betearazteko nazioarteko sistemak zituen mugak salatu zituen; emakumeen partaidetza bultzatu eta beraien nortasuna indartu zuen, nahiz eta emakume zein erakunde aniztasuna handia izan.

## Eta Beijingen ondoren, zer?

### Beijing +10. New York, 2005

2005eko otsaila eta martxoaren bitartean, Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordea (CSW) New Yorken bildu zen, Beijingeko Ekintza Plataforma onetsi zenetik egindako aurrerapenak aztertzeko. Bertaratutako ordezkartzek Beijingen sortutako Deklarazioa eta Ekintza Plataforma berretsi zituzten, eta NBeri, nazioarteko erakundeei eta gizarte zibilari eskatu zieten biak ezartzearen aldeko ekintzak areagotu zituzten.

Hona hemen azterketaren emaitzak:

- Gizonen eta emakumeen artean ez dago berdintasunik, hainbat arazo oraindik ez direlako desagertu: emakumeen kontrako indarkeria maila altua da mundu osoan, batez ere gatazka armatuetan; GIB/HIESak gero eta eragin handiagoa du emakumeengan; lan esparruan desberdintasunak daude generoen artean; sexu eta ugalketa osasunari dagokionez emakumeen eskubideak ez dira errespetatzen, eta ondasunak eskuratzeko orduan ez dituzte aukera berdinak.
- Ezinbestekoa da Deklarazioa eta Beijingeko Ekintza Plataforma osorik ezartzea Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) erdietsi nahi badira.
- Funtsezkoa da bi testu horiek osorik eta modu eraginkorrean ezartzea eta CEDAWen (Emakumearen aurkako Diskriminazio Mota guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioan) hartutako erantzukizunak betetzea generoen berdintasuna eta emakumeen jabeakintza lortzeko.

Emakumeei buruzko munduko biltzar horietaz gain, esan behar da emakumeentzako oso garrantzitsuak izan diren beste hainbat biltzar, konbentzio, gailur eta ebazpen egon direla. Hurrengo hauek nabarmenduko ditugu:

<b>Emakumearen aurkako Diskriminazio mota guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW)</b>	<b>Ingurumena eta Garapenari buruzko Biltzarra. Rio de Janeiro 1992</b> Ingurumenaren arloan genero ikuspegia sartu zuen: emakumeei baliabide naturalen kudeatzaile gisa eta garapen iraunkorraren muin eta eragile gisa duten egitekoa aitortu zitzaien.
1979. urtean onetsi zuten eta 1981ean sartu zen indarrean. Loteslea den lehenengo tresna juridikoa da, eta emakumeen egoerari buruzko konbentzioetatik garrantzitsuena ere bai, arrazoi hauengatik:	<b>Giza Eskubideei buruzko Munduko Biltzarra. Viena 1993</b> Biltzar honek aitortu zuen emakumeen eskubideak giza eskubideak zirela. Horren ondorioz, nazioarteko komunitateak oinarritzko giza eskubideen urratzetzat jo zuen emakumeen kontrako indarkeria.
<ul style="list-style-type: none"><li>• Estatuak emakumeen eskubideak aitortzera, babestera eta bermatzera derrigortzen ditu.</li><li>• Estatuak diskriminazioa desagerrarazteko neurri zehatzak hartzera derrigortzen ditu.</li><li>• Kulturak eta tradizioek diskriminazioari eusteko izan duten erantzukizuna aitortzen du, eta estatuak gizonen eta emakumeen rola eta estereotipoak ezabatzen derrigortzen ditu.</li><li>• Giza eskubideen zatiezintasunaren kontzeptua indartzen du.</li></ul>	<b>Populazioa eta Garapenari buruzko Munduko Biltzarra. Kairo 1994</b> Emakumeen kontrako diskriminazio eta indarkeria mota guztiak ezabatzea proposatu zuen. Aitortu zuen, halaber, emakumeen jabeakuntza eta autonomia, eta baita ere beraien osasun egoera zein egoera politiko, sozial eta ekonomikoa hobetzea berez helburu bat zirela. Biltzarrak emakumeen giza eskubideak aldarrikatu zituen, eta bereziki ugalketari eta sexu harremanei dagokien erabakiak hartzeko eskubidea.
	<b>Garapen Sozialari buruzko Gailurra. Kopenhage 1995</b> Gailur honek agerian utzi zuen emakumeen jabeakuntza politiko, ekonomiko eta soziala funtsezkoa dela pobrezia, langabezia eta desintegrazio soziala desagerrarazteko.
	<b>Emakumeei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko Segurtasun Kontseiluaren 1325. ebazpena. 2000</b> Aitortu zuen bakea eta segurtasuna mantentzeko nahiz sustatzeko ezinbestekoa zela emakumeek erabakiak hartzeko guneetan aukera berdinekin parte hartzea.

## Berdintasunaren aldeko borrokaren lorpenak, oztopoak eta erronkak

Lorpenak	Oztopoak	Erronkak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herrialde guztietako legeriek dagoeneko gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna aitortzen dute.</li> <li>• Herrialde gehienetan ekintza positiboko politikak daude ezarrita, herritarren partaidetza politikoari dagokionez gizonen eta emakumeen artean dagoen arraila txikitzeko.</li> <li>• Herrialde guztiek dituzte gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunei aurre egiteko estatu mailako mekanismo espezifikokoak.</li> <li>• Sareko lanari, esperientzia trukeari eta beren proposamenak negoziatzeko egindako presioari esker, emakumeek gizarte zibil gisa entzun diezaietela lortu dute, eta gizarte zibilaren eta estatuaren artean egitura berriak sortu dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Legeak hor daude, baina beti ez dira ezartzen, berme eta informazio faltagatik.</li> <li>• Estatu mailako mekanismoak ahulak dira eta gobernu aldaketen menpe daude.</li> <li>• Zenbait gobernuak akordioen betetzea erabili egiten dute beren interesen arabera.</li> <li>• Integrismo eta fundamentalismo erlijiosoen aurrerakadak gizonen eta emakumeen berdintasunaren esparruan egindako aurrerapenak geldiarazten ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gobernuak borrontate politikoa erakutsi behar dute akordioak betearazteko.</li> <li>• Emakumeen mugimenduek eta mugimendu feministek presioa egin behar dute Beijingeko Ekintza Plataformaren inguruan, plataforma hori funtsezkoa baita emakumeek pertsona eta herritar gisa dituzten eskubideak defendatzeko.</li> <li>• Nazio Batuak, alde batetik, indartu egin behar dira, gobernuak behartu eta hartutako konpromisoen jarraipena egin ahal izateko, eta, bestetik, birmoldatu egin behar dira, estatuaren eskubideak ez ezik, herritarrenak ere kontuan har daitezten.</li> </ul>

Virgina VARGASen “El Balance de Beijing y el papel de las Naciones Unidas” artikulutik aterea. Control Ciudadano aldizkarian argitaratua, 2000.

II. Atal honetako edukiak informazio-iturri hauetatik atera da: Informazioa iturri hauetatik atera da: Isis Internacional ([www.isis.cl](http://www.isis.cl)), Emakunde ([www.emakunde.es](http://www.emakunde.es)), SODEPAZen “Cuadernos Africa-América Latina. Revista de Análisis Sur-Norte para una Cooperación Solidaria” aldizkaria, 19 zk. (Carmen de la Cruz-en “El camino de Beijing: el movimiento de mujeres hacia el nuevo milenio” artikulua) eta Hegoaren “Igualdad, desarrollo y paz. Luces y sombras de la acción internacional por los derechos de las mujeres” Laneko Koadernoa. Itziar Hernández, Arantxa Rodríguez.

## Proposaturiko ariketak

1. 4 talde osatuko ditugu, eta bakoitzari eskatuko diogu Biltzar bati buruzko datuak bilatzeko (noiz eta non egin zen, zenbat jendek parte hartu zuen, nolako ondorioak atera zituzten, zenbat erakundek hartu zuten parte foro alternatiboan, etab.). Datu horietan oinarrituz, talde bakoitzak laburpen bat egingo du eta beste taldeei azalduko die.
2. Gure ikastetxe edo erakundeetan Emakumeak buruzko Biltzar moduko bat egingo dugu. Horretarako, taldeak Biltzar horien egiturari buruzko informazioa bildu beharko du (nork hartzen du parte biltzar ofizialean eta nork foro alternatiboan; zein gai jorratzen dituzte; foro alternatiboko erakundeek nola egiten dute presioa biltzar ofizialean hartzen diren erabakietan eragiteko, etab.). Ondoren, emakumeen egoerari dagokionez ikastetxe edo erakundeetan antzematen dituen arazoak eztabaidatuko ditu taldeak. Amaitzeko, benetako Biltzarretan bezala, Deklarazio bat egingo dute eztabaidatutako arazoei aurre egiteko hartu beharreko neurriak finkatzeko.

### Biltzarrei buruzko informazio iturriak:

[www.isis.cl/temas/conf/mujer](http://www.isis.cl/temas/conf/mujer)

[www.emakunde.es](http://www.emakunde.es)

[www.onu.org/documentos/confmujer](http://www.onu.org/documentos/confmujer)

[www.choike.org](http://www.choike.org)

[www.onu.org/temas/mujer/Beijing5/beijing5](http://www.onu.org/temas/mujer/Beijing5/beijing5)

[www.emakunde.es/emakunde/igualdad\\_UNU/cuando\\_c](http://www.emakunde.es/emakunde/igualdad_UNU/cuando_c)



### III. Emakumeen nazioarteko mugimendua

Hainbat garaï, kontinente eta jatorri etnikotako emakumeek ekinzakegin izan dituzte gizartean aldaketa sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalak eragiteko, eta oraindik egiten dituzte. Gizarte aldaketarako emakume mugimenduei buruzko zenbait ikerketen arabera, lau borroka dira mugimendu horien ardatzak:

- a. Biziraupen ekonomikoa (janaria, lana, ongizatea lortzea).
- b. Nazionalismoa edo arraza/etniarekin loturiko gaiak.
- c. Gai humanistikoak, esaterako, bakea, ingurumena, hezkuntza publikoa, osasuna....
- d. Emakumeen eskubideak.

Gida honetan **emakumeen nazioarteko mugimendua** aipatzen dugunean, helburu berberak dituzten, mundu mailako antolamendua duten eta Nazioarteko Biltzar eta Foroetan parte hartzeko ados jartzen diren emakumez ari gara.

Emakumeen nazioarteko mugimenduak ezaugarri batzuk partekatzen dituen arren, aniztasun kultural eta sozial izugarria hartzen du bere baitan. Kultura eta talde sozial desberdinetako emakumeak antzerakoak dira generoarekin loturiko interes eta aldarrikapen batzuei dagokienez, baina haien bizipenak eta borrokak oso desberdinak izan daitezke. Horregatik, emakumeen mugimenduaren

barruan eskualde mailako sareak daude, Amerika, Afrika, Asia eta Europan, eskualde horietako bakoitzeko genero espezifikotasunetan oinarritzen direnak.

Emakumeen mugimendua anitz bihurtzen duen beste elementu bat berau osatzen duten erakundeen izaera da, mugimendu feministaren barruan edo kanpoan egon baitaitezke. Erakunde guztiak ez dute beren burua feministatzat jotzen; hala ere, argi dago emakumeen berdintasunari eta eskubideei dagokienez orain arte eman diren aurrerapauso gehienak feminismoaren indarraren eta eraginaren emaitza direla, bai bere alderdi akademikoarena eta bai ekintzailearena. Beraz, esan daiteke mugimendu feministak oinarri teorikoak eta tresna metodologiko zein operatiboak sortu dituela, eta emakumeen nazioarteko mugimenduak oinordetzan hartu dituela.

Emakumeen nazioarteko mugimenduari munduko biltzarretako foro alternatiboetan parte hartzeak ekarri dion onuretako bat sareko lana izan da. Topaketa horietan, mundu osoko erakundeak harremanetan jartzen dira eta esperientziak nahiz ezagutzak trukatzeko dituzte; aliantzak sortzen eta estrategiak bateratzen dituzte, beren ekintzen eraginkortasuna handituz eta beren burua abestuz.



## Toki mailan ondorioak dituen sareko lanaren adibide bat: Emakumeen Munduko Martxa

Emakumeen Munduko Martxa hainbat jatorri etniko, kultura, erlijio, politika, klase, adin eta orientazio sexualetako emakume taldeez osaturiko mugimendua da. 2000. urtean jarri zen abian, hurrengo helburuak lortzeko neurri zehatzak aldarrikatzeko: pobrezia errotik kentzea, aberastasuna banatzea, emakumeen kontrako indarkeria desagerraraztea eta haien osotasun fisiko zein moralarekiko errespetua bermatzea.

2004an, mugimendu honek *Gizateriaren aldeko Emakumeen Munduko Gutuna* idatzi zuen. Gutunak munduko emakume, gizon eta herrialde zapalduak beren boterea banaka zein taldeka aldarrikatzera deitzen ditu, mundua aldatzeko eta berdintasun, bake, askatasun, elkartasun eta justizian oinarritutako harremanak sortzeko.

Sortu zenetik, Emakumeen Munduko Martxak aktiboki lan egiten du nazioarteko gizarte mugimenduetan zein estatu mailakoetan. Horrez gain, emakumeek gaur egun gizartean duten tokiari eta izan behar dutenari buruzko gogoeta egiten du.

*“Martxa egiteko arrazoi nagusia zera da: gure azterketaren irismena eta eragina, gobernatzen gaituzten arau politikoak, sozialak eta ekonomikoak berriro definitzeko nahira eraman gaituen azterketarena, handitzea. Feminismoa pentsamolde bat da, proiektu sozial bat, alternatiba bat, munduari begiratzeko beste modu bat. Feminismoa desberdintasunak azpimarratzen eta emakumeek boterera iristeko duten premia azaltzen haratago doa. Desberdina denarekiko beldurra betiketzen duten, desberdintasunekiko gorrotoa pizten duten eta indarkeria justifikatzen duten sistemak ezabatzea; bazterketa eragiten duten eta menpekotasuna areagotzen duten sistemak salatzea; horiek dira bultzatzen gaituzten arrazoiak”. Emakumeen Munduko Martxa.*



### 1. Sartu Emakumeen Munduko Martxaren web orrialdean ([www.marchamondiale.org](http://www.marchamondiale.org), [www.emakumemartxa.org](http://www.emakumemartxa.org)) eta egin hurrengo ariketak:

- Bilatu informazio hau: Zer da Emakumeen Munduko Martxa? Nork osatzen du mugimendu hori? Zeintzuk dira bere helburuak? Zein herrialdetan jarduten du? Nolako ekintzak egiten ditu?
- Egin “Gizateriaren aldeko Emakumeen Munduko Gutuna”ren laburpena.
- Bilatu Martxak gure ingurune hurbilean egin dituen ekintzei buruzko informazioa.
- Emakumeen Munduko Martxaren ekimenen barruan, eta elkartasunaren sinbolo gisa, mundu osoko hainbat emakume taldek manta bat egin zuten oihal zatiak elkartzuz (patchwork), Munduko Gutunaren balioak eta emakume guztien batasuna adierazteko (ikus web orrialdea). Sare horrek aldarrikapen ekintzak egitera deitzen duenez, zer egin zenezake zuk zure herrian, indarkeriarik eza eta sormena oinarritzat hartuz, gizartea aldatzeko?

### 2. Aukeratu hurrengo bi esaldietako bat eta taldeka bere esanahiari buruzko gogoeta egin:

- Gizarte harremanen aldaketen edukia, neurri handi batean, eguneroko bizitzan dauden oinarritzko harremanek erabakitzen dutela ulertzen den egunean, emakumeek egindako ekarpen iraultzailea aitortuko da (Alda Brito da Motta).*
- Ez dago ekintza den teoria feministarik, teoria berez ez delako praxia eta ez duelako praxia ordezkutzen. Hala ere, emakumeen mugimenduek egindako azterketek, beren metodologia zein ikuspuntuek, beste prozesu teoriko askok baino aukera gehiago ematen dituzte tamaina handiko praktika sozial kolektibo bat egiteko (Alberto Koschutz).*

Esaldien iturria: SOPEPAZen “Cuadernos Africa-América Latina. Revista de Análisis Sur-Norte para una Cooperación Solidaria” aldizkaria, 18. zk. (Rocío Castroren “*Apuntes sobre movimientos de mujeres y feminismo en América Latina*” artikulua).

## Glosarioa - Ordena alfabetikoan

**Ekintza Plataforma:** Munduko Biltzarretatik sortutako plana. Biltzarrean eztabaidatutako gaiari dagokionez gobernuak, nazioarteko komunitateak eta gobernuz kanpoko erakundeek hartu behar dituzten neurriak zehazten ditu.

**Emakumeen nazioarteko mugimendua:** helburu berberak dituzten, mundu mailako antolamendua duten eta Nazioarteko Biltzar eta Foroetan parte hartzeko ados jartzen diren emakumeen mugimendua.

**Feminismoa:** bizi duten errealitatea aztertu eta emakume izate hutsagatik jasaten dituzten diskriminazioez jabetuta, diskriminazio horiek ezabatzeko eta gizarte aldatzeko antolatzea erabaki duten emakumeek bultzatutako teoria eta praktika politikoa. Errealitate horretatik abiatuz, feminismoa filosofia politikoa bilakatu da, eta, aldi berean, gizarte mugimendu. *Nuria Varela, "Feminismo para principiantes". Ediciones B, 2005.*

**Foro alternatiboak:** esperientziak eta ezagutzak trukatzeko gizarte zibileko erakunde eta taldeek antolatzen dituzten guneak. Nazioarteko gailurrak edo biltzarrak egiten direnean biltzen dira, eta aurretik prestakuntza prozesu bat egon ohi da; prozesu horretan, proposamen zehatzak egiten dira eta gobernuak presioa egiten zaie gailur edo biltzar ofizialeko agendan eta erabakietan eragiteko.

**Generoa:** "femeninoa" eta "maskulinoa" elementu naturalak eta biologikoak izan beharrean eraikuntza kulturalak direlako ideiatik sortutako kontzeptua. Horren arabera, generoa eraikuntza kultural bat da, historian zehar gizonen nagusitasunean eta emakumeen gutxiagotasunean islatu dena. Hierarkizazio sexual horrek sistema sozial eta politiko patriarkalak sorrarazi ditu. Simone de Beauvoirrek zioenez, "ez da emakume jaiotzen, emakume izatera heltzen da". *Rosa Cobo Bedía, Celia Amorósek zuzenduriko "10 palabras clave sobre mujer" argitalpenean, Verbo Divino argitaletxea, 1995.*

**Giza Eskubideak:** mundu osoan onartuta dauden printzipio bartzuk dira, eta beraien helburua da gizakiak banakako ikuspuntutik zein ikuspuntu sozial, material eta espiritualetik pertsona gisa duen duintasuna bermatzea. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta askatasuna dakarte berekin. *CORMUJER eta ACIDI, 2004. "Este cuerpo es mío". Cartilla lúdico pedagógica para jóvenes multiplicadoras y multiplicadores del proyecto "Nuevas Ciudadanas, Nuevos Ciudadanos, Juventud, Género y Participación Democrática". Florentzia (Kolonbia).*

**Munduko Biltzarra:** Nazio Batuen Erakundea osatzen duten gobernuetako ordezkariak biltzen dituen topaketa. Mundu osoa ukitzen duen gai bat aztertzea du helburu (garapen sozialaren

inguruko arazoekin loturikoa), eta adostutako erabakiak ezartzeko estatuek abiarazi behar dituzten neurriak proposatzea.

**Nazio Batuen Erakundea:** gobernu arteko erakundea. Helburu hauek ditu: nazioarteko bakeari eustea eta segurtasuna indartzea, eta nazioarteko lankidetzako mekanismoen eta mekanismo multilateralen bidez, giza eskubideak eta mundu osoko herrien garapen iraunkorra bultzatzea. 191 Estatu Kide ditu.

**Patriarkatua:** boterezko ordena soziala, gizona paradigmaz hartzen duen diskriminazio mota batean oinarritua. Ordena horrek gizonen eta gizonekin loturiko ezaugarrien nagusitasuna bermatzen du, emakumeen eta emakumeekin loturiko ezaugarrien aurretiko barneratzearen gainetik. Horrez gain, gizon batzuek beste batzuk menpean edukitzea dakar, eta emakumeen artean alienazioa sortzen du. Beraz, patriarkatua desberdintasunak betiketzen dituen sistema soziokulturala da, emakumeei eta bere helburuekin bat ez datozen gizonen kalte egiten diena. *Marcela Lagarde, "Género y Feminismo: desarrollo humano y democracia". Editorial Horas y Horas, 1996.*

**Sareak:** beraien jarduketaren eremua zabaltzeko eta beraien ekintzen eraginkortasuna handitzeko, aliantzak sortzen eta estrategiak bateratzen dituzten erakundearen multzoa. Sareen bitartez, erakundeek ezagutzak trukatu dituzte eta elkarlanean aritzen dira, beren burua aberastuz.

**Sororitatea:** mundu osoko emakumeen arteko elkartasuna adierazten duen hitza. Marcela Lagarderen arabera, honela definituko litzateke: "bizitza askatasun osoz bizitzeko, eta lan egin, sortu eta konbentzitu ahal izateko, feminismoan bat egiten eta beren burua aurkitzen duten emakume desberdin eta berdinen arteko adiskidetasuna eta konplizitatea".

## Web orrialdeak

Choike- Hegoaldeko gizarte zibilari buruzko ataria.

[www.choike.org](http://www.choike.org)

Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea.

[www.emakunde.org](http://www.emakunde.org)

Generoari eta garapenari buruzko baliabideen gida.

[www.guiagenero.com](http://www.guiagenero.com)

Isis Internacional.

[www.isis.cl](http://www.isis.cl)

Emakumeen Munduko Martxa.

[www.marchemondiale.org](http://www.marchemondiale.org)

[www.emakumemartxa.org](http://www.emakumemartxa.org)

(Munduko Martxa Euskadi)

Mujeres en Red.

[www.mujeresenred.net](http://www.mujeresenred.net)

Mujeres Hoy (Latinoamerika).

[www.mujereshoy.com](http://www.mujereshoy.com)

NBE

[www.onu.org/documentos/confmujer](http://www.onu.org/documentos/confmujer)

Rebelión (Emakumearen atala).

[www.rebellion.org](http://www.rebellion.org)

Social Watch- Herritarren Behatokia.

[www.socialwatch.org](http://www.socialwatch.org)

UNIFEM- Emakumearentzako Nazio Batuen

Garapen Funtza.

[www.unifem.org](http://www.unifem.org)

WHRnet- Emakumeen Giza Eskubideak.

[www.whrnet.org](http://www.whrnet.org)

WIDE- Network Women in Development Europe.

[www.eurosur.org/wide](http://www.eurosur.org/wide)

Women Watch- Genero berdintasuna eta emakumeen jabeakentzari buruzko informazioa eta baliabideak.

[www.un.org/womenwatch](http://www.un.org/womenwatch)

## Filmografia

“Billy Elliot”

Erresuma Batua, 2000

Zuzendaria: Stephen Daldry

“La sonrisa de Mona Lisa”

Estatu Batuak, 2003

Zuzendaria: Mike Newell

“Las mujeres de verdad tienen curvas”

Estatu Batuak, 2002

Zuzendaria: Patricia Cardoso

“Libertarias”

Espainia-Italia-Belgika, 1996

Zuzendaria: Vicente Aranda

“Mi vida en rosa”

Frantzia-Belgika-Erresuma Batua, 1999

Zuzendaria: Alain Berliner

“Mujeres insumisas”

Mexiko, 1995

Zuzendaria: Alberto Isaac

“Pan y rosas”

Erresuma Batua, 2000

Zuzendaria: Ken Loach

“Quiero ser como Beckham”

Erresuma Batua, 2002

Zuzendaria: Gurinder Chadha

“Siete Mujeres”

Estatu Batuak, 1966

Zuzendaria: John Ford

“Sólo para hombres”

Espainia, 1960

Zuzendaria: Fernando Fernán-Gómez

“Tomates verdes fritos”

Estatu Batuak, 1991

Zuzendaria: Jon Avnet